



NOLA ABONATU ZIGOITIKO UDAL IGERILEKUETAN?

Eskaera-inprimakia bete. Udal igerilekuetan, udal bulegoetan edo udalaren webgunean (www.zigoitia.eus / "kultura eta kirola" atala/ igerilekuei buruzko azpiatala) jaso dezakezu inprimakia. Ondoren, jaso nahi duzun abono-motari dagokion tasa ordaindu behar duzu (ikus azpiko koadroa).

Abono motak:

BANAKAKO ABONOA		
<b>UMEAK</b> (5 urtetik 18 urtera) Oharra: 5 urtetik beherakoek EZ dute ordaindu behar	<b>ZIGOITIAN ERROLDATUA</b> (%50eko bonifikazioa tasan)	11€
	<b>ZIGOITIAN ERROLDATU GABEA</b>	22€
<b>HELDUAK</b> (18 urtetik gorakoak)	<b>ZIGOITIAN ERROLDATUA</b> (%50eko bonifikazioa tasan)	20€
	<b>ZIGOITIAN ERROLDATU GABEA</b>	40€
FAMILIAKO ABONOA		
Gurasoak eta 18 urtetik beherako seme-alabak	<b>ZIGOITIAN ERROLDATUTAKO FAMILIA</b> (familia-kide guztiek egon behar dute Zigoitian erroldatuta) (%50eko bonifikazioa tasan)	40€
	<b>ZIGOITIAN ERROLDATU GABEKO FAMILIA</b>	80€
FAMILIA UGARIAREN ABONOA		
Gurasoak eta 18 urtetik beherako 3 seme-alaba edo gehiago	<b>ZIGOITIAN ERROLDATUTAKO FAMILIA</b> (familia-kide guztiek egon behar dute Zigoitian erroldatuta) (%60eko bonifikazioa tasan)	28€
	<b>ZIGOITIAN ERROLDATU GABEKO FAMILIA</b>	70€

Inprimakia eta bere barnean dagoen autolikidazioa beteta eta ordaindu izanaren ziurtagiria entregatu udal igerilekuetan, ondoren, igerilekuen eremura sartzeko herritar txartela jasotzeko.



Eskaera-inprimakian ondokoa adierazi beharko da: abonoa udako denboraldirako bakarrik egin nahi den, edo datozen denboraldietarako ere egiten den. Bigarren kasuan, ondorengo denboraldietan abonoaren ordainketa egingo den bankuko kontuaren IBAN kodea adierazi beharko da (ezin izango da bigarren bide hau aukeratu, ordainketa helbideratzeko kontuaren zenbakia adierazten ez bada).

Behin denboraldia hasita, EZIN izango da ordaindutako tasa itzultzeko eskatu.

Emandako datuetan edozein aldaketa egoten bada, Zigoitiko Udalari jakinarazi beharko zaio. Familia abonoetan eta familia ugarien abonoetan, familiaren egoeran aldaketaren bat egon bada, jakinarazi egin beharko da.

Zigoitiko Udalaren, Zuiako Udalaren eta Urkabustaizeko Udalaren arteko hitzarmenak indarrean jarraitzen duen bitartean, Zigoitiko udal igerilekuetan abonatutakoek Zuiako eta Urkabustaizeko udal igerilekuetako instalazioak erabili ahal izango dituzte dohainik, Zigoitiko herri txartela erakutsita.

### NOLA UTZI ZIGOITIKO UDAL IGERILEKUETAKO ABONATU IZATEARI?

Denboraldi bakar baterako abonoaren bidea aukeratu izanaren kasuan salbu, abonoa urtez urte automatikoki berrituko da, erabiltzaileak zerbitzuan baja emateko asmorik adierazten ez badu.

Baja emateko, udal bulegoetan aurrez aurre, edo posta bidez, URTE BAKOITZAREN MAIATZAREN 31 BAINO LEHEN, dagokion abonoan baja eskatzeko idazki bat aurkeztu beharko da. Denboraldi horretako abonoan bajarik ez da emango eskaera urte horretako maiatzaren 31 baino lehen aurkezten bada.